

Bideoaren erreferentzia: A1B12

Maila: A1

Helburuak: Aurrez aurreko harremanetan proposamenak egitea eta horiei labur erantzutea proposatutakoa onartuz.

Funtzioak: Solaskidearengan eragitea: egiteko bat proposatzea, asmoak jakinaraztea.

Azken ekintza: Egiteko batzuk burutzeko (etxeko lanak) elkar konbentzitzea.

Adierazpide linguistikoak:

Baldintza erreala; arrazoiak emateko modua. Adibidez: hemen geratzen bagara, asko aurreratuko dugu lana.

1- IKUSI AURRETIK

1.1 Non egiten dituzu euskaltegiko etxeko lanak?

Girotzeko euskaltegiko etxeko lanei buruzko galdera ireki pare bati erantzungo diete binaka. Lanak egiteko tokirik egokiena zein den izango dute hizpide.

2- IKUSI BITARTEAN

2.1 Nola doa Josuren eta Amaiaren masterra?

Ariketaren zuzenketa:

- **Josuk lana parkean egin nahi du eta Amaiak ez (Egia)**
- **Josuk eguraldia aipatzen du Amaia konbentzitzeko. (Egia)**
- **Josuk eguraldia aipatzen du Amaia konbentzitzeko. (Egia)**
- **Josuk ere erre egin nahi du. (Egia)**
- **Josu pozik dago masterrarekin. (Gezurra)**
- **Amaiak Josuren jarrera kritikatu du. (Egia)**

3- IKUSI ONDOREN

3.1 Hizkuntzan arreta: konbentzitzeko arrazoiak.

Baldintza errearen bidez arrazoitzen: *Ba- aditza, -ko aditza*. Egitura hori duten, edo egitura horrekin birformula daitezkeen, hainbat esaldi daude bideoan, bestea konbentzitzeko arrazoi gisara erabiltzen direnak: “hemen prestatzen badugu, asko aurreratuko dugu”, “hemen geratzen bagara, ez dugu sekula bukatuko”, adibidez.

3.2 Josuk Amaia konbentzitu nahi du eta Amaiak Josu.

Ariketaren zuzenketa:

- **Parkean lan egiten badugu, lana aurreratuko dugu. (Josuk)**
- **Honela segitzen badugu, ez dugu lana bukatuko. (Amaiak)**
- **Erretzen ez baduzu, zuretzat hobea izango da. (Josuk)**
- **Zuk erretzen baduzu, nik ere erreko dut. (Josuk)**

- **Honela jarraitzen baduzu, denok erreko gara. (Amaiak)**

Transkripzioan aztertu ideia hauek.

3.3. Beste etxeko lanak

Etxeko lanak irudikatzen dituzten argazkien artean bat aukeratu beharko du. Argazkietan zer ikusten den ere eskaintzen zaio zerrenda baten bidez: ohea egin, arropa zabaldu...

Gustuko ez duen etxeko lana azpimarratu beharko du, eta argazkietan ez badago gustuko ez duen lan hori beste bat ere aukera dezake.

3. 4. Etxeko lanak: denon ardura.

Ikasleak gustuko ez duen etxeko lan hori lagunak egin dezan konbentzitu behar du, horretarako arrazoiak emanaz. Arrazoiak emateko orduan ikusitako esaldiak lagungarri izango ditu. Konbentzitzeko garaian ikasleen artean sor daitekeen elkarrizketaren adibide bat eskaintzen zaie argazki baten ondoan.



3. 3. Etxeko lanak: asko, desatseginak... Baina egin beharrekoak.

Etxeko lanen zerrendarekin batera hauek egiteko/ez egiteko konbentzitzeko orduan erabiltzen diren arrazoiaren zerrenda bat era atera daiteke. Honen antzekoak edo: *Nik ikasi badut plantxatzen, zuk ere ikasiko duzu.*

Transkripzioa

JOSU.— Gaur ere liburutegira, Amaia? Gaur ez, mesedez!!

AMAIA.— Baaaaai, atzeratuta daukagu gure zatia eta martxa honetan ez dugu lana garaiz amaituko.

JOSU.— Baina begira zer eguraldi ona. Gaur hemen prestatuko dugu, ados?

AMAIA.— Ez, hemen ezin da. Beti kontu bera.

JOSU.— Ez, zera! Hemen prestatzen badugu, asko aurreratuko dugu. Parkean ez dago inor. Benga...

AMAIA.— (*zigarroa eta sua ateraz*) Ai! A zer pazientzia!

ETENA

JOSU.— Amaia! Erre egiten duzu???

AMAIA.— Bai, urduri banago, bai!

JOSU.— Erretzea txarra da, ez duzu hori entzun?

AMAIA.— Bai... Hamaika aldiz. Ez dut asko erretzen, baina zurekin oso urduri jartzen naiz!

JOSU.— Erretzea txarra da...

AMAIA.— Bai...

JOSU.— Amaia, benetan, erretzea txarra da...

AMAIA.— Bai, Josu...

JOSU.— (*zirikatzaile*) Ba... zuk erretzen baduzu, nik ere bai! Eman zigarro bat!

AMAIA.— Ezta pentsatu ere! Zigarroa bukatu eta lanean hasiko gara.

JOSU.— Ai, zupada bat.

AMAIA.— Ez, oso-oso txarra da!

JOSU.— Joe!

AMAIA.— Ai! Garbi dago bai, sekulako gogoia daukazu lan egiteko, e?

ETENA

JOSU.— Aspertuta nago lan horrekin. Ez da sekula bukatuko?

AMAIA.— Hemen geratzen bagara, ez!

JOSU.— Hurrengo lana interesgarria ez bada, masterra utziko dut!

AMAIA.— Ai, Josu, benetan, e, ume mukizu bat ematen duzu! Martxa honetan, zure inguruko guztiak erreko dituzu! Eta ni aurrena!

JOSU.— Ez bota, ez bota!! Kondarra nahi dut! [...] E! Ikusten? Ez didazu kasurik egiten. Horia motibazio falta bat da lanerako.

AMAIA.— Ergela! Goazen! Goazen!